

Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2019ko irailaren 30etik urriaren 4rako astea

➤ INGURU MAKROA:


- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

➤ ASTE HONETAN MERKATUETAN

➤ GURE IKUSPEGIA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROGUNEAK: PMIak



Datuaren analisia


PMI manufaktura-indizea, bere azken datuan, 45,7 puntutara jaitsi zen (aurreikusitakoa 45,6) aurreko hileko 47tik, datuaren irakurketarik txarrena 2012ko urritik. Beraz, dagoeneko zortzigarren hilabetez jarraian uzkuritu dira Euroguneko manufakturak. Okertze hori Alemaniaren eskutik etorri zen nagusiki, PMI sektoriala 2009ko ekainetik ikusten ez zen mailarik baxuenera (41,7) jaitsi baitzen. Espainian eta Italian ere, Euroguneko laugarren eta hirugarren ekonomietan, hurrenez hurren, datua atzeraldian mantendu zen, 50 puntuen azpitik. Frantziak, blokeko bigarren ekonomiarik handienak, hamarren bategatik soilik lortu zuen atalase hori gainditzea. Euroguneko **Zerbitzuen PMIak** erakutsi zuen irailean sektorearen hazkundeak nabarmen egin zuela moteltzera, 51,6 puntutan kokatu baitzen, aurreko hileko 53,5 puntuen azpitik (jarduera komertzialaren igoerarik txikiena 2019aren hasieratik), eta hasierako aurreikuspenaren azpitik (52). Italiak puntu bat gora egin zuen datu aurreratuari dagokionez, Alemaniak puntu bat beherantz berrikusi zuen, eta Frantziak puntu erdi beherantz.

Adierazlearen azalpena

PMI Manufaktura/Zerbitzuak indizeak hilero erosketen profesionalei eta enpresetako exekutiboek manufaktura-sektorearen egoerari buruz egiten zaien inkesta bat du oinarri. Fabrikazioaren/zerbitzuen sektorearen aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzkuritzen ari den seinale.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROGUNEA: KPI



Datuaren analisisia


Euroguneko urte arteko inflazio-tasa % 0,9koa izan zen joan den irailean, aurreko hileko irakurketa baino hamarren bat gutxiago eta Euroguneko prezioen igoerarik txikiena 2016ko azarotik, datu aurreratuaren arabera. Irailean, Euroguneko inflazioak izandako ahultzearen isla izan zen energiaren prezioen beherakada (% 1,8koa), abuztuan izandako % 0,6ko jaitzieraren ondoren. Elikagai freskoak, bestalde, % 0,7 garestitu ziren, aurreko hilean % 2,5 igo ondoren. Azpiko inflazioa % 1,2 igo zen, aurreko hilean baino hamarren bat gehiago. Herrialdeka, KPIak moteltzera egin zuen Espainian, % 0,1eko urte arteko tasaraino, abuztuan baino bi hamarren gutxiago. 2016ko abuztuko minimoetara jaitsi zen, beraz. Abuztuarekin alderatuz, prezioak egonkor mantendu ziren. Alemaniako urte arteko tasa % 0,9koa izan zen abuztuan (abuztuan baino hamarren bat gutxiago), mailarik baxuena 2016ko azarotik. Aurreko hilaren aldean, berriz, KPIak hamarren bat egin zuen behera. Frantzia, bestetik, hileko inflazioa -% 0,3koa izan zen (+% 0,5 abuztuan), eta urte arteko inflazioa % 1,1koa (% 1koa abuztuan).

Adierazlearen azalpena

KPIa hileroko prestatzen du Eurostat/Europako Banku Zentralak. Europako etxeek kontsumitzen dituzten oinarritzko zerbitzu eta ondasunen multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin ezagutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat handitu edo txikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: ISM



Datuaren analisisia


ISMk argitaratutako datuaren arabera, **manufakturen sektoreko jarduera** are gehiago okertu zen % 47,8an kokatu baitzen aurreko hileko % 49,1etik (aurreikuspenek susperraldia egongo zela adierazten zuten). Bada, irakurketarik txarrena izan da 2009ko ekainetik, Atzeraldi Handiaren azken hilabetea munduko lehen ekonomiarentzat. Partida guztien artean, esportazio-agindu berriak nabarmendu ziren, azpi-indizea % 41era eraman zuen jaitsiera bortitza izan baitzuen. **ISM indizearen arabera, zerbitzuen sektoreko jarduera**, garrantzitsuena Estatu Batuetako ekonomian, 2016aren hasieratik ikusten ez ziren minimoetara jaitsi zen irailean. Zerbitzuen ISMa 52,6raino jaitsi zen 56,4tik, espero zen 55,0erainoko jaitsieraren oso azpitik. Jardueraren indizeak ere behera egin zuen, 61,5etik 55,2ra. Eskari berrien indizea 53,7raino jaitsi zen abuztuko 60,3tik. Gainera, enpleguaren indizeak 53,1etik 50,4ra egin zuen behera.

Adierazlearen azalpena

ISM zerbitzuen/manufaktura-indizeak konpainia amerikar nagusietako erosketen arduradunei hileroko egiten zaien inkesta bat du oinarri. Bertan, manufaktura-sektorearen egoeren inguruan galdetzen zaie. Fabrikazioaren/zerbitzuen sektorearen aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzkuertzen ari den seinale

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: ENPLEGUAREN TXOSTENA



Datuaren analisisia


AEBek 136.000 enplegu sortu zituen irailean, aurreikusi ziren 145.000 lanpostuak baino pixka bat gutxiago. Halere, langabezia-tasaren portaera bikaina izan zen, % 3,7tik % 3,5era egin baitzuen behera ezustean, azken 50 urteetako baxuena. Azken 12 hilabeteetan, soldatek % 2,9 egin zuten gora, abuztuan baino hiru hamarren gutxiago. Lan-indarreko parte-hartze tasak, hau da, lanean edo enplegu bila dauden estatubatuarren proportzioak, % 63,2ari eutsi zion.

Adierazlearen azalpena

Enplegu-txostena hilerok argitaratzen du Estatu Batuetako Lan Sailak. Estatu Batuetako lan-merkatuaren egoerari buruzko txosten osatu bat da, eta hainbat datu aurki daitezke bertan; horien artean nabarmenenak: enpleguaren sorrera (nekazaritza-sektorea kanpo utzita), langabezia-tasa eta soldaten bilakaera. Txosten honi esker, Estatu Batuetako ekonomiaren bilakaeraren gaineko pronostiko bat egin daiteke. Lan-merkatua hazten ari bada, herritarren errenta erabilgarria handitu egiten da. Beraz, kontsumitzailearen gastua igo daiteke, BPGd-aren igoera bat eragingo lukeena, eta, ondorioz, herrialdearen ekonomiaren hobekuntza.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

JAPONIA: INDUSTRIA EKOIZPENA / ZERBITZUEN



PMIa

Datuaren analisia

Aurreko hilarekin alderatuta, **industria-ekoizpenak** % 1,2 egin zuen behera abuztuan (-% 0,5 espero zen). 2018ko abuztuari dagokionez, indizea % 4,7 jaitsi zen. Adierazle hau manufaktura sektorearen oso mende bizi den Asiako herrialdeko ekonomiaren bilakaera aurreikusteko funtsezkoa da. Bestetik, PMIaren arabera, **zerbitzuen sektoreko jarduerak** 36. hilabetez jarraian egin zuen gora irailean, baina abuztuan baino erritmo pixka bat motelagoan, barne eskari handiak ekonomia bultzatzen jarraitu zuenaren seinale, hileko salmenten gaineko zergen igoeraren aurretik. PMIa abuztuko 53.3 puntuetatik 52.8ra jaitsi zen irailean. PMI konposatuak (manufaktura eta zerbitzuena), aldiz, 51,9tik 51.5era egin zuen behera.


Adierazlearen azalpena

Industria-ekoizpenaren indizeak (IPI) herrialde bateko industria-sektorearen adierazgarri den enpresa multzo baten ekoizpenean emandako aldaketak neurtzen ditu. Hilero enpresei industria-sektorearen egoerari buruz egiten zaizkien galdetegiaren erantzunetatik lortzen dira datuak. Ekonomia baten ekoizpen-maila nola aldatzen den jakitea oso garrantzitsua da hazkundearen analisia egiteko.

Zerbitzuen PMIak hilero erosketen profesionalei eta enpresetako exekutiboek egiten zaien inkesta bat du oinarri. Zerbitzuen sektorearen jardura-maila neurtzeko balio du, sektore horretan egiten diren erosketen bidez. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi

ASTEKO DATUEN PODIUMA

TXINA: PMIak



Datuaren analisisia

PMI indizearen arabera, manufakturen industriak bosgarren hilabetez jarraian egin zuen behera irailan, nahiz eta adierazleak 0,3 puntu egin zituen gora, 49,8raino, aurreikuspenak gaindituz. Zerbitzuen sektoreko PMIa, herrialdeko barne-produktu gordinaren erdia baino gehiago dena, 53,7 puntutan kokatu zen, aurreko hilean baino hamarren bat beherago. Iraileko zerbitzuen Caixin PMIa 51.4 puntutara igo zen abuztuko 50.4tik, eta, beraz, bigarren hilabetez jarraian egin zuen gora, azken 19 hiletako maximoetara. Ekonomistek, aldiz, 50,2ra jaistea espero zuten. Caixin PMI manufaktura-indizea ere 51,4ra igo zen, aurreko hileko 50,4tik eta esperotako 50,2tik.

Adierazlearen azalpena

PMI Manufaktura/Zerbitzuak indizeak hilero erosketen profesionalei eta enpresetako exekutiboek manufaktura-sektorearen egoerari buruz egiten zaien inkesta bat du oinarri. Fabrikazioaren/zerbitzuen sektorearen aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzurtzen ari den seinale.

KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreik.
10/07	Eurogunea	Sentix inbertitzailearen konfiantza	-13.0
10/08	Japonia	BoP oinarritzko merkataritza balantza	¥36.4b
10/08	Txina	Txinako Composite PMI Caixin	--
10/08	Txina	Txinako PMI zerbitzuak Caixin	52.0
10/08	Alemania	Urte arteko WDA industria-ekoizpena	-% 4.3
10/08	Frantzia	Balantza komertziala	-5000m
10/08	Espainia	Urte arteko SA industria-ekoizpena	% 0.6
10/09	Estatu Batuak	FEDen minutak	--
10/10	Alemania	Balantza komertziala	18.8b
10/10	Frantzia	Urte arteko industria-ekoizpena	% 0.1
10/10	Erresuma Batua	Urte arteko industria-ekoizpena	-% 0.8
10/10	Estatu Batuak	Urte arteko KPIa	% 1.8
10/10	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	218k
10/11	Alemania	Urte arteko KPIa	% 1.2
10/11	Espainia	Urte arteko KPIa	% 0.1
10/11	Estatu Batuak	Pertzepzioa Mich. U.	92.0
10/11	Estatu Batuak	Oraingo egoera Mich. U.	--
10/11	Estatu Batuak	Aukerak Mich. U.	--

BURTSA:

Munduko burtsek bilakaera negatiboa izan zuten astean, Ipar Ameriketako argitaratutako datu ekonomikoak, AEBen eta Europaren arteko fronte komertziala eta Brexita direla kausa. Ingurune makroan, ISM indizearen argitaratutako datuek erakutsi zuten AEBetako manufakturen jarduera duela hamarkada luze bateko mailarik baxuenera jaitsi zela, eta zerbitzuena 2016aren hasieratik ikusten ez ziren minimoetara. Horrek inbertitzaileen adorea hoztu zuen, Estatu Batuetako ekonomiaren osasunagatik kezkatuta, orain arte dezelerazioari hobekien aurre egin dion ekonomietako batek espero baino moteltze handiago bat izan dezakeelako. Nolanahi ere, ostiralean, Ipar Amerikako langabezia-tasa azken 50 urteetako minimoetara jaitsi zen, eta goranzko mugimendu bat eragin zuen errenta aldakorrean, Wall Street-en astean metatutako galerak hein handi batean konpentsatuz. Europan, PMiek Euroguneko ekonomiaren dezelerazioa berretsi zuten. Arlo komertzialean, AEBen eta Txinaren arteko negoziazio berrien atarian, jakin zen Munduko Merkataritza Erakundeak AEBei baimena eman ziola Europari mugazergak ezartzeko, Airbus hegazkinen fabrikatzaileari emandako lege kanpoko diru-laguntza publikoak konpentsatzeko, hain zuzen ere. Hortaz, urriaren 18tik aurrera, Trumpek % 10eko tasak ezarriko dizkie EBtik datozen hegazkinen osagaiei, eta % 25ekoak Europako hainbat kontsumo-ondasunei. Brexitari dagokionez, Boris Johnsonen proposamen bat luzatu zion Bruselari, urriaren 31n iteera gogorra saihestuko duen akordioa egiteko. Bi alderdiak, baina, elkarrengandik oso urrun daude oraindik, eta EBk aste bat eman zion lehen ministro britainiarrari bere proposamena hobetzeko. Johnsonen akordiorik gabe irteteko mehatxu egin bazuen ere, ostiralean ezagutu zen gobernu Britainiarrak Brexiterako ezarritako epea luzatzeko eskatuko diola Europar Batasunari, baldin eta hilaren 19rako akordio bat negoziatzea lortzen ez bada.

ERRENTA FINKOA:

Europako gobernuen kurbek ez zuten aldaketa nabarmenik izan, tasen beheraka arin bat besterik ez. Bund-ak -% 0,59an amaitu zuen astean (-% 0,01), eta Espainiako 10 urterako tasak % 0,13an (-% 0,02); arrisku-prima, beraz, op 1 jaitsi zen, 72 op-raino. AEBetan, bestalde, tasen mugimendua handiagoa izan zen, Ipar Amerikako datu makroen ahultasunak eraginda, baita inbertitzaileek FEDek urri amaieran egingo duen bileran tasak jaisteko aukerari emandako balioarengatik ere. Erosketek % 1,53ra eraman zuten 10 urterako treasury bonua (-% 0,15). Kredituak, bestalde, diferentzialak handitu zituen.

DIBISAK / LEHENGAIK:

Dolarrak ahultzera egin zuen AEBetako jardueraren datu kaskarrengatik, eta Europako inflazioaren geldialdi berriaren eragina orekatu zuen, EBZk adierazitako % 2ko helburutik gero eta urrunago dagoena. Hala ere, euroak hobera egin zuen dolarraren aurrean, joan den astelehenean azken 29 hiletako minimoetara jaitsi ondoren. Garrantzi gutxiko mugimenduak liberan, Brexitari adi. Lehengaiei begira, makro alerten eta Ekialde Ertaineko tregoa geopolitikoaren konbinazioak petrolioaren prezioaren jaitsiera azaldu zuten. Urriaren prezioa azken 2 hiletako minimoetara jaitsi zen, baina onera etorri zen gero, bere babes-aktiboaren papera berreskuratzuz.

INDIZEAK	PREZIOA	%Aldaketa Astean	% Ald 2019
MSCI WORLD (Local)	1.657,63	-1,08	15,00
IBEX 35	8.961,80	-2,42	4,94
DJ EURO STOXX 50	3.446,71	-2,80	14,84
DJ STOXX 50	3.144,13	-3,01	13,92
FTSE	7.155,38	-3,65	6,35
S&P 500	2.952,01	-0,33	17,76
Dow Jones	26.573,72	-0,92	13,92
NASDAQ	7.982,47	0,54	20,30
NIKKEI 225	21.410,20	-2,14	6,97
MSCI GORAKORRAK (Lo)	55.902,63	-0,75	4,65
MEXBOL	43.416,90	1,31	4,27
BOVESPA	102.551,30	-2,40	16,69
SHANGHAI	3.043,35	-0,92	16,54
Errusia Rts Mosku	1.311,65	-2,68	22,73

Gobernuen tasak	Maila	Aldaketa Astean	Ald. 2019
ALEMANIA 2 URTE	-0,78	-0,01	-0,17
ESPAINIA 2 URTE	-0,52	-0,01	-0,28
AEB 2 URTE	1,40	-0,23	-1,08
ALEMANIA 10 URTE	-0,59	-0,01	-0,83
ESPAINIA 10 URTE	0,13	-0,02	-1,28
AEB 10 URTE	1,53	-0,15	-1,16
ALEMANIA 30 URTE	-0,07	0,01	-0,95
ESPAINIA 30 URTE	1,02	-0,01	-1,59
AEB 30 URTE	2,02	-0,11	-1,00
Kreditu-spreada (op)			
MARKIT ITRX EUROPE 12/24	57,95	1,57	-30,42
MARKIT ITRX EUR XOVER 12/24	249,17	15,48	-104,51

Dibisak	Maila	% Aldaketa Astean	Ald. % 2019
Dolarra / Euroa	1,10	0,36	-4,26
Yena / Euroa	117,40	-0,60	-6,60
Libera / Euroa	0,89	0,02	-0,96

Lehengaiak	Maila	% Aldaketa astean	% Ald
Petrolio (Brendt)	58,80	-4,62	10,59
Oro	1.504,75	0,51	17,33

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.